



2017ko MAIATZA EUSKO BAROMETROA

Euskal iritzi publikoari
buruzko aldizkako azterketa



2017ko MAIATZA BAROMETROA

Euskal iritzi publikoari buruzko
aldizkako azterketa



Fundación
IBERDROLA



AURKEZPENA

EUSKOBAROMETROA (www.ehu.es/euskobarometro) **Francisco José Llera Ramo** irakasleak zuzendutako UPV/EHUko Politika eta Administrazio Zientzia saileko ikertaldearen izena da. Taldeak gune egonkor bat du, irakasle eta ikertzaile hauek osatutakoa: Arantxa Elizondo, Jonatan García, Patxi Juaristi, Rafael Leonisio, José M, Mata, Juantxo Mokoroa, Carmelo Moreno, Ainhoa Novo, Alberto de la Peña, Sergio Pérez eta Alfredo Retortillo. Era berean, prestakuntza jaso edo taldekide izan dira Eider Alkorta, Juan Luis Arriaga, Yosune Iraola, Eva Martínez, Pablo San Martín, Beatriz Santisteban eta Raquel Sanz.

Proiektua 1995. urtean jarri zen martxan, 70eko hamarkadaz geroztik bildutako ikerketa esperientzia handia baliatuta. Helburu nagusia euskaldunen portaera politikoa eta iritzi publikoa aztertzea zen, eta horri erakundeen eta politika publikoen analisiari eta bilakaerari lotutako beste helburu batzuk batu zaizkio. Zentzu horretan, **EUSKOBAROMETRO TALDEAREN** jarduera oso emankorra izan da azken urteotan, eta horren erakusle dira bere iritzi barometroaren inkestean segidak izandako oihartzuna eta egindako azterketa ugari. Gaur egun, Euskobarometro Taldea kalitate zientifikoa aitortua daukan talde bat dela esan dezakegu; izan ere, Eusko Jaurlaritzak euskal unibertsitate sisteman ebaluatutako 200 ikertaldearen rankingeko lehen postuetan dago, eta 2013an lehen lekuari eutsi zion Gizarte Zientzietako ikertaldearen artean, bost urteren ondoren: www.ehu.es/euskobarometro.

- 1) Euskobarometro Taldearen lehen emaitza praktikoa datu-banku oparo bat sortzea izan da, sei hilabetearen behin egindako Euskobarometroa izeneko inkestetan eskuratutako datuak oinarri hartuta. Hemendik gutxira, bildu eta sistematizatutako milioika datu horiek guztiak on-line kontsultatu eta tratatu ahal izango dira; oraingoz, ordea, horien aukeraketa esanguratsu bat eskaini dezakegu. Datu horiek, 50.000 euskal herritarrek baino gehiagok eskuzabaltasunez emandako erantzunen bidez jasotakoak, kontsulta daitezke gure webgunearen **EUSKOBAROMETROAREN SERIE KRONOLOGIKOEN** atalean.
- 2) Euskobarometro Taldeak berak Euskobarometroaren udaberriko eta udazkeneko inkestean emaitza nagusiak ematen ditu aditzera hedabideetan eta iritzi publikoaren aurrean. Emaitzetan datu politikoak, sozialak eta ekonomikoak ematen ditu. Datu horiek guztiak aipatutako webgunearen **EUSKOBAROMETROAREN AURKEZPENAK** atalean kontsulta daitezke.
- 3) Euskobarometro Taldeak Euskadirako hauteskunde estimazioak aurreratu ohi ditu, hauteskunde garaian gauden aldira. Euskobarometro Taldeak euskal hauteskunde autonomikoen inguruan egindako aurreikuspen horiek **EUSKOBAROMETROAREN HAUTESKUNDE ESTIMAZIOAK** atalean kontsulta daitezke, webgune berean.
- 4) Era berean, Euskobarometro Taldeak beste era bateko ikerketa eta aholkularitza lanak egiten ditu aldiari behin, analisi enpirikoen, erakunde ebaluazioaren eta politika publikoaren arloan, gehienbat. Jarduera horiek ikus daitezke ere **EUSKOBAROMETRO TALDEAREN LANEN ZERRENDA** atalean, webgune berean.
- 5) Euskobarometro taldeak egindako lanen artean, bereziki aipatu behar dira generoari eta gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuneko politikei

buruzko ikerketak. Horren harira, taldeko irakasleak eta ikertzaileak hainbat ikerketa eta aholkularitza lan egiten ari dira erakundeekin batera, genero ikuspegia jardun publikoan txertatzeko eta sexuen arteko bazterkeriarekin amaitzeko aurrerapausoak emate aldera. Jarduera horiek guztiak ere webgune berean daude ikusgai, **GENERO IKERKETA** atalean.

- 6) la hasieratik, **EUSKOBAROMETROAK** arreta berezia eskainiko dio Euskal Herriko Unibertsitatearen irudi publikoaren ezagutzari, eta aitzindaria izan da arlo horretan. Hala, 1996. urteaz geroztik, **UPV/EHuren gizarte hedapenari buruzko ikerketa** argitaratu dugu urtero, eta lanaren azken edizioa gure webgunean kontsulta daiteke, errektoreak alde zuzenetik aurretik baimena emanda.
- 7) Euskobarometro Taldeak, 2000. urtean, Informazioaren Gizartearen Euskadiko Behatokia (IGEB) izeneko zerbitzu berria sortu zuen, informazioaren teknologia berriek euskal komunitatean duten eragina neurtzeko. Emaitzak kontsulta daitezke, halaber, webgune berean, **INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN EUSKADIKO BEHATOKIAren (IGEB)** estekan.
- 8) Europan euroa indarrean sartu, erakundeak erreformatu, eta Europar Batasuna handitu denez eta nazioarteko egoera ere aldatu denez, gai horiekiko interesa areagotu dela ondorioztatu dugu, eta, horren harira, **EUROPAKO INTEGRAZIOAREN ETA NAZIOARTEKO GIZARTEAREN EUSKAL BEHATOKIA (ENEB)** sortzearen beharra ikusi genuen. Behatoki horri buruzko informazioa ere orri horretan sartu genuen, 2001eko udazkeneko barometroaren ondoren.
- 9) 2001. urteaz geroztik, **EUSKOBAROMETROAK**, Bartzelonako, Granadako eta Santiagoko unibertsitate autonomoen (ICPS) eskualdeetako unibertsitate barometroekin batera, abian du **POLITIKA AUTONOMIKOAREN BEHATOKI (PAB)** berria, non beren galdetegi zati komunak partekatzen, alderatzen eta aldi berean zabaltzen diren. PABek webgune (www.opa151.com) eguneratu bat dauka, eta bertan eskualdeetako barometroetara sartzeko estekak ematen dira.
- 10) Horrez gain, azken urteotan, **EUSKOBAROMETRO TALDEAK** ikerketa nazionalen lerro berri bat ireki du, beste erakunde batzuekin lankidetzan. Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatu Agentziarekin (ANECA) izandako lankidetzaren emaitza gisa, **Espainiarrak eta Unibertsitatea** izeneko azterketa aitzindaria egin zen. **Espainiako unibertsitate sistemaren irudi publikoari buruzko lehen inkesta nazional hori** aipatutako erakundeak argitaratu zuen 2004an, eta gure webgunean kontsulta daiteke. Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin (TBF) eta Ikerketa Soziologikoen Zentroarekin lankidetzan egindako lanaren emaitza izan zen, halaber, **espainiarrei eta terrorismoaren biktimei** buruzko azterlan aitzindaria. **Estatuko lehen inkesta hura** CISEk argitaratu zuen, 2004an. Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin lankidetzan ere, **“Percepción ciudadana sobre el terrorismo y sus víctimas” izeneko estatu mailako II. inkesta** argitaratu zen, 2005ean, eta izenburu bereko **III., IV. eta V. inkestak 2006an, 2007an eta 2008an argitaratu ziren**, hurrenez hurren. Lan horiek guztiak gure webgunean kontsulta daitezke.

*UPV/EHUko Zientzia Politikoko Sailaren
EUSKOBAROMETROA ikertaldeak, jarraian emandako
iruzkin eta datuen bidez, 2017ko maiatzean egindako
udaberriko inkestaren emaitza nagusiak aurkezten ditu.*

*Informazio hori kontsultatu eta sakondu daiteke gure
webgunean:*

www.ehu.eus/euskobarometro

Aurkibidea

I.	FITXA TEKNIKOA	6
II.	EGOERA ETA KEZKA PERTSONALAK, GIZARTE ETA EKONOMIA GIROA ETA KONSTITUZIOARI EMANDAKO BABESA	7
III.	GOBERNU ETA POLITIKA GIROA ETA HORREN EBALUAZIOA, ALDERDIEN IBILBIDEA ETA LIDERGO POLITIKOA	15
IV.	ABERTZALETASUN SENTIMENDUA ETA EUSKAL IDENTITATEA, AUTOGOBERNUA, ETA INDEPENDENTZIAREKIKO JARRERAK	25
VI.	ETA, PRESO ETA TERRORISMOAREN AMAIERAREKIKO JARRERA	35

I. go Atala

2017ko MAIATZEKO EUSKOBAROMETROAREN FITXA TEKNIKOA

Egilea: UPV/EHUko Zientzia Politikoko Sailaren EUSKOBAROMETROA taldea Francisco J. Llera Ramo irakasleak zuzentzen du; José M. Mata, Carmelo Moreno eta Alfredo Retortillo irakasleek osatzen dute; eta, Rafael Leonisio, Jonatan García eta Ion Baratasen laguntza teknikoak jaso du.

Landa lana: Banakako elkarrizketak, **CPS**ren landa sareak galdetegi egituratu batez etxez etxe egindakoak, 2017ko maiatzaren 2tik ekainaren 2ra.

Unibertsoa: Euskal Autonomia Erkidegoko 18 urteko eta hortik goragoko biztanleria.

Laginareen tamaina: Etxeetan egindako 1.200 inkesta.

Laginareen diseinua: Etapa anitzekoa eta auto-haztatua, **EUSTAT**en metodologiaren arabera, 34 udalerritako (7 Araban, 12 Bizkaian eta 15 Gipuzkoan) 60 errolda sekzioetan egin zen, eta banakoak ausaz hautatu diren, adin eta sexu kuoten arabera.

Laginareen errorea: % 95eko konfiantza mailarako eta $p = q = 0,5$ biztanleria aldakortasun gorenekotzat hartuta, laginareen errorea lagin osorako \pm % 2,82 da. Azpilagin probintzial bakoitzerako eta baldintza bereberekin, erroreak \pm % 4,89 dira Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko datuetarako, hurrenez hurren.

Igotzaileen kalkulua: Metodo interaktibo baten bidez, laginak probintzia, sexu, adin eta heziketa mailaren arabera egokitu dira, **EUSTATEk** 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren "Errolda sekzioen tipologietan" (1.721 sekzioetako 9 tipologia) oinarrituta egindako zozketatik abiatuta. Horrez gain, sekzioak aukeratzeko 2012ko Etxebizitzen Direktorioa erabili da, urte bereko Biztanleria Erregistroaren eguneratzearekin batera, 2012ko sekzio banaketarekin.

II. Atala

Gehiengoak positiboki baloratzen du bere egoera pertsonala, 2017an, eta krisiaren aurreko gogo aldartea berreskuratzen ari da.

Ezkortasuna eta mesfidantza Espainiako ekonomiarekiko, batik bat. Haatik, hobea da euskal ekonomiaren egoeraren gaineko pertzepzioaren bilakaera.

Enpleguak kezka nagusia izaten jarraitzen du; dena den, nabarmen egin du atzera lehenengoz krisia hasi zenetik.

Espainiako Konstituzioaren aurkako jarrerak atzera egin du, eta oraindik aldekoari gailentzen zaio.

GEHIENGOAK POSITIBOKI BALORATZEN DU BERE EGOERA PERTSONALA, 2017AN, ETA KRISIAREN AURREKO GOGO ALDARTEA BERRESKURATZEN ARI DA

Hiru euskaldunetarik bik (% 66), Araban batez ere (% 71), uste dute 2017. urtea ona izaten ari dela arlo pertsonalean, eta gainerakoek esperientzia negatiboren bat aipatu (% 11) edo jarrera eszeptikoa dute (% 23), urte hasieran egiaztatutako baikortasuna berreskuratu (+ 12 puntu) denetik hamabost hilabetez egonkor igaro ondoren eta ezkortasun korrelatiboak atzera egin (-11 puntu) ondoren. Orain dela urtebete esan genuen bezala, bilakaera horrek erakusten digu ekonomia krisiaren aurreko gogo aldartea berreskuratu dela (ikus 1. grafikoa).

KRISIAK EUSKAL HERRITAR GEHIENEN ONGIZATEA KALTETZEN JARRAITZEN DU, EZKORTASUN EGONKORREKO TESTUINGURU BATEAN, BATEZ ERE, ESPAINIAKO EKONOMIAREKIKO. HORREN AURREAN, HOBEA DA EUSKAL EKONOMIAREN EGOERAREN BILAKAERARI BURUZKO PERTZEPZIOA

Eran berean, azken sei hileko honetan eta hiru sei hileko jarraituetan izandako atzerapen nabarmenaren ondoren (-21 puntu), gehiengoaren ezkortasunak atzera egin du (% 67), Espainiako ekonomia osoan nagusi izanik; ia ez da baikorrik geratzen (% 4) eta eszeptikoak apur bat igo dira (% 28). Ezkortasun hori Arabako gutxienekoaren (% 59) eta Gipuzkoako gehienekoaren (% 70) artean kokatzen da. Halere, orain dela bost sei hileko hasitako biderei jarraituta, euskal ekonomiaren gaineko giro ezkorra oraindik agerikoa bada ere (% 28), pertzepzio hori nabarmen ari da atzera egiten urte artekoan (-20 puntu) baikorren alde (% 26) eta, batik bat, eszeptikoen alde (% 46), probintzien artean alde nabarmenik egon gabe --- ikus 2. grafikoa ---.

ENPLEGUAK KEZKA NAGUSIA IZATEN JARRAITZEN DU, BAINA NABARMEN EGIN DU ATZERA LEHENENGOZ KRISIA HASI ZENETIK


Enpleguarekiko kezka (% 51) lehenengo lekuan jarraitzen du --- Arabako % 46ren eta Bizkaiko % 52ren artean ---, baina nabarmen egin du atzera azken hiru sei hilekoetan (-19 puntu) eta lehenengoz krisia hasi zenetik. Askoz ere beherago ageri dira "gizarte desberdintasunak eta ongizatea" epigrafean bildu ditugun arazoak (% 19), nahiz eta egoera nabarmena izan (+10 puntu). Hirugarren lekuan dago egoera politikoarekiko kezka (% 12), eta apur bat igo da (+4 puntu). Jarraian, egoera ekonomikoa aipatzen da (% 7), azken sei hilekoetan -7 puntu atzera egin duena. Urrunago ageri dira osasuna eta hezkuntza (% 5) eta etxebizitza (% 1); bien bitartean, indarkeriak,

baketzeak, presoen gaiak edo euskal arazoak % 1en jarraitzen dute, eta oso atzean geratu dira, bestalde, immigrazioa, ingurumena, nazioarteko gatazkak, terrorismo Yihadistaren mehatxua eta beste gai batzuk (ikus 3. grafikoa).


ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN AURKAKO JARRERAK ATZERA EGIN DU, ETA ORAINDIK ALDEKOARI GAILENTZEN ZAIO

Gaur berriro konstituzioaren erreferenduma egingo balitz, EZETZAK (% 31) atzera egin (-6 puntu), eta BAIETZA (% 30) gaitutuko luke berriro, aurreko sei hilekoetako joera aldaketa apur bat zuzenduta. Aldeko iritzia, neurri batean, gehiago ageri da ez-abertzaleen artean (% 39), baina partekatzen du ia lau abertzaleetatik batek (% 22). Bestalde, orain dela hogeita hamar urteko ezezko botoak nabarmen egin du atzera (-8 puntu azken sei hilekoan) abertzaleen artean (% 42). Aurreko hauteskunde autonomikoen hautesleriarri erreparatua, baiezkoaren aldekoak popularrak (% 78), sozialistak (% 62) eta Ciudadanosekoak (% 50) dira; ostera, ezezko botoa soilik da nagusi EHBren (% 62) boto emaileen artean, askoz zatituago baitaude PNVren eta Elkarrekin Podemosen boto emaileak (ikus 4. grafikoa).


1. Grafikoa: EUSKALDUNEN EGOERA PERTSONALAREN BILAKAERA, 1993-2017




2. Grafikoa: EUSKADIKO ETA ESPAINIako EGOERA EKONOMIKOAREN BALORAZIOA



3. Grafikoa: EUSKALDUNEN HIRU KEZKA NAGUSIAK (ERANTZUN ANIZTASUNAREN BATURA)



4. Grafikoa: ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREI EMANDAKO BOTOAREN BILAKERA, 1978* ETA 2017 ARTEAN



* Bilakaera sektorialak oraingo boladari egteko erreferentzia aurrekoarekin alderatuta (2016ko Urria)



III. Atala

Espainiako egoera politikoaren gaineko ezkortasun erabatekoa atzera egiten hasi da; bien bitartean, parekatuta daude baikorrak eta ezkorak euskal egoera baloratzean, gehiengoaren eszeptizismoaren erdian.

Urkullu lehendakariaren eta haren gobernuaren aurreko nota apur bat jaitxi da, eta gehiengoak eta ia hautesleria guztiek gaituztu ematen diete

Soilik PNvk lortu du saldo positiboari eustea herritarrek euskal alderdiei emandako balorazioan, atzera egin badu ere; Elkarrekin Podemos eta PSE-EE dira bere boto emaileen balorazio txikiena jasotzen dutenak.

Mariano Raxoiren gutxiengo gobernu popularraren kudeaketak euskal gizarte gehien-gehiena konbentzitu gabe jarraitzen du.

I. Urkulluk eta M. Larrionek lortu dute soilik gaituzte, lider politikoei emandako balorazioen jaitziera ia orokor baten erdian.

ESPAINIAKO EGOERA POLITIKOAREN GAINEKO EZKORTASUN ERABATEKOA ATZERA EGITEN HASI DA; BIEN BITARTEAN, PAREKATUTA DAUDE BAIKORRAK ETA EZKORRAK EUSKAL EGOERA BALORATZEAN, GEHIENGOAREN ESZEPTIZISMOAREN ERDIAN

Espainiako egoera politikoaren gaineko ezkortasunak, ia erabatekoak (% 82), aurreko joera negatiboa irauli du (-6 puntu azken sei hilekoan); ia ez da baikorrik geratzen (% 2) eta hamarretik bat baino gehiago eszeptikoa da (% 14). Aldiz, euskal egoera politikoaren gaineko balorazioa eten da bere hobekuntza bide motelean eta parean daude berriro baikorrak (% 27) eta ezkorrak (% 28), seihileko atzerapen eta aurrerapen korrelatiboen ondoren. Gainerakoan, kasu honetan, eszeptizismoak nagusi (% 43) eta ia egonkorra izaten jarraitzen du azken bederatzi hilabeteetan, urte arteko atzerapena -12 puntukoa izan den arren. Abertzaleak eta ez-abertzaleak bat datoz, berriro ere, Espainiako egoera politikoari buruz nagusi den ezkortasunean (% 86 eta % 79, hurrenez hurren), eta, oraingoan, bat datoz ere euskal egoera politikoaren gaineko eszeptizismoan (% 42 eta % 43, hurrenez hurren); gainera, gehiengoaren diagnostiko horretan ez da alderik hautematen probintzien artean eta oso txikiak edo garrantzi gutxikoak dira ere hauteslerien arteko aldeak (ikus 5. grafikoa).

URKULLU LEHENDAKARIAREN ETA HAREN GOBERNUAREN AURREKO NOTA APUR BAT JAITSI DA, ETA GEHIENGOAK ETA IA HAUTESLERIA GUZTIEK GAINDITUA EMATEN DIETE

Hauteskunde autonomikoen ondoren, Urkullu lehendakariaren eta haren gobernu berriaren kudeaketaren balorazioak gainditua lortu du berriro (5,3), baina apur bat egin du okerrera (-0,5) hauteskudeen aurreko notarekiko. Batez besteko kalifikazio hori gainditzten dute PNVren boto emaileek (6,6 eta -0,4 hamarren jaitsita), C'sekoek (5,5 eta -0,3 hamarren) eta PSE-EEkoek (5,4 eta -0,7 hamarren); PPkoek ere gainditua ematen diete (5,2 eta -1,3 puntu); ostera, Elkarrekin Podemoseko hautesleriak ozta-ozta ematen die gainditua (5) eta EHBkoak bakarrik uzten du gainditu gabe (3,8 eta -1 puntu). Ere berean, gehiago dira berriro ere exekutiboaren gestioa ontzat ematen duten euskaldunak (% 73) txartzat ematen dutenak baino (% 24). Gobernu berriaren hasierako aldi honetan atzerapenak (-8 puntu) eta aurrerapenak (+7 puntu) nabarmenak izan dira, hurrenez hurren, eta aurrekoaren amaierako joera irauli da (ikus 6. grafikoa).

SOILIK PNVK LORTU DU SALDO POSITIBOARI EUSTEA, HERRITARREK EUSKAL ALDERDIEI EMANDAKO BALORAZIOAN, ATZERA EGIN BADU ERE; ELKARREKIN PODEMOS ETA PSE-EE DIRA BERE BOTO EMAILEEN BALORAZIO TXIKIENA JASOTZEN DUTENAK

Elkarrizketatuei eskatu diegu euskal talde parlamentarioen ibilbide politikoa baloratzeko, azken hilabeteotako jarduna kontuan hartuta, eta soilik PNvk lortu du berriro iritzi positiboen (% 38) eta negatiboen (% 22) arteko saldo positiboa (+16), baina nabarmen egin du okerrera (-20 puntu). Aitzitik, gainerako alderdien saldoa negatiboa da, EHBren gutxieneko -14 puntuetatik (+% 19 eta -% 33), PPren gehieneko -68 puntuetara (+% 4 eta -% 72), tartean egonda Elkarrekin Podemosen -23 puntuak (+% 15 eta -% 38), PSE-EEren -45 puntuak (+% 7 eta -% 52) eta Ciudadanosen -51ak (+% 4 eta -% 55); lehenengo biek nabarmen egin dute okerrera eta azken hirurak, berriz, apur bat hobetu dira. Bestalde, hautesle propioen balorazio positiboak dagokienez, % 40ko gutxienekoa dute PSE-EEK (eta + 9 puntu) eta Elkarrekin Podemosek, eta % 77ko gehienekoa, berriz, PNvk (eta -6 puntu); tartean dira PPren % 48, C'sen % 50 (eta + 17 puntu) eta EHBren % 64 (ikus 7. grafikoa).

MARIANO RAXOIREN GUTXIENGO GOBERNU POPULARRAREN KUDEAKETAK EUSKAL GIZARTE GEHIEN-GEHIENA KONBENTZITU GABE JARRAITZEN DU

Mariano Raxoiren gobernu popularrak gehiengoan kudeatutako azken lau urteen gainean Euskal iritziz publikoaren erabateko eta etengabeko gaitzespenak bere horretan jarraitzen du (% 86) gutxiengoan emandako lehen pausoen ondoren, sektore ideologiko edo politikoak bereizi gabe eta probintzia guztietan. Soilik % 3k baloratzen du positiboki, eta % 11k jarrera eszeptikoa du. Deigarria da hautesle popularraren artean balorazio positiboa gutxiengoa izatea lehenengoz (% 39), nagusi diren eszeptikoen aurrean (% 49). Pentsatzekoa denez, gaitzespena izan da nagusi gainerako hautesleriaren artean (ikus 8. grafikoa).


SOILIK I. URKULLUK ETA M. LARRIONEK LORTU DUTE GAINDITZEA

Lider politikoaren balorazioetan, sei hilekoan ia nagusi izan dira atzerapenak (hamarren bat eta puntu baten arteko galerak izanda), eta soilik A. Alonso, A. Rivera eta M. Raxoi libratu dira. Testuinguru horretan, aurreko sei hilekoetako hurrenkera aldatu da, ezagutza mailan batzuen eta besteen arteko aldeak mantenduta. Oraingoan, I. Urkullu lehendakaria eta EHBko M. Larrion geratu dira lehenengoak eta gainditzea lortu dute (5), baina haien ezagutza mailak oso bestelakoak dira (% 95 eta % 22, hurrenez hurren), eta -05 eta -0,6 hamarreneko atzerapenak izan dituzte. Horien atzetik, bigarren talde batean, honako hauek ageri dira: N. Alba (4,6, -0,6ko atzerapena eta % 26ko ezagutza maila), A. Ortuzar (4,3, -0,8 hamarren eta % 67), A. Garzón (4,2; -1 puntu eta % 71), P. Zabala (4,1, -0,6 hamarren eta % 46) eta P. Iglesias (4, -0,7 hamarren eta % 95). Hirugarren taldean daude A. Otegi (3,7, -0,8 hamarreneko atzerapena eta % 89 ezagutza maila), P. López (3,7 eta % 95), P. Sánchez (3,5, -0,1 hamarren eta % 94) eta I. Mendia (3,5, -0,5 hamarren eta % 67). Amaitzeko, azken taldean honako hauek ditugu: S. Díaz (2,4 eta % 86ko ezagutza maila), A. Alonso (2,2, + 0,2 hobetzen duen bakarra eta % 66ko ezagutza maila), A. Rivera eta S. Sáenz de Santamaría (2 eta % 91) eta M. Raxoi bera (1,3 eta ezagutza maila handiena % 98). --- Ikus 9. grafikoa ---


Hautesleriek beren liderrei emandako balorazioei dagokienez, lehen lekuetan ageri dira A. Otegi (7,1), I. Urkullu eta M. Larrion (6,8), A. Alonso (6,5), P. López eta S. Sáenz de Santamaría (6,4), M. Raxoi (6,3) eta A. Ortuzar (6,1), eta S. Díaz da gainditzea lortzen ez duen bakarra.

Amaitzeko, puntuazio horiek onarpen indizearekin osatzen baditugu (gutxienez, gainditu bat eman dutenen ehunekoak), rankingaren buru I. Urkullu (% 61) dugu, bera baita onarpenen gehienekoa jaso duen bakarra berriro, -7 puntuko atzerapena gorabehera. Haren atzetik daude P. Iglesias (% 45), A. Otegi (% 38), P. López (% 37), A. Ortuzar (% 36), A. Garzón (% 35), P. Sánchez (% 34), I. Mendía (% 25), P. Zabala (% 23), S. Díaz (% 19), A. Rivera eta S. Sáenz de Santamaría (% 17), N. Alba (% 15), eta amaieran ditugu M. Larrion (% 14), A. Alonso (% 13) eta M. Raxoi (10%). Azken bederatzi hilabeteetako bilakaerari erreparatzen badiogu, nabarmena da nolako bilakaera izan duten, batez ere, P. Zabalak (-13 puntu), P. Iglesiasek eta A. Garzónak (-12 puntu) eta A. Otegi (-10 puntu), eta horien aurrean, lider popularrak izandako hobekuntza txikiak (ikus 10. grafikoa).

5. Grafikoa: EUSKADIKO ETA ESPAINIAKO EGOERA POLITIKOAREN BALORAZIOA



6. Grafikoa: ORAINGOKO KOALIZIO GOBERNUAREN KUDEAKETAREN NOTA



PNV= 6,6 (-0,4)

PSE-EE= 5,4 (-0,7)


PP= 5,2 (-1,3)

Podemos=5,0 (-0,1)


AbstL=4,9 (-0,4)

EHB= 3,8 (-1,0)

7. Grafikoa: AZKEN HILABETEETAKO ALDERDI POLITIKOEN IBILBIDEAREN BALORAZIOA




8. Grafikoa: ORAINGO PPREN GOBERNUAREN BALORAZIOAREN BILAKAERA (2012-2017)




* Bilakaera sektorialak oraingo bozadari egiteko erreferentzia aurrekoarekin alderatuta (2016ko Urria)

9. Grafikoa: LIDER POLITIKOEN BALORAZIOA EUSKADIN

OSO EZAGUNAK




EZ HAIN EZAGUNAK



(%) Balorazioa ematen duten elkarrizketatzen ehunekoa

10. Grafikoa: LIDER POLITIKOEN ONARPEN INDIZEA EUSKADIN





IV. Atala

Euskal gizarteak abertzale eta ez-abertzaleen artean banatuta jarraitzen du, baina azkenekoak dira nagusi.

Espainiar eta euskal identitate bikoitza berresten dute, euskalduntasuna argi nabarmenduz.

Autogobernurako beren lehentasunek zatiturik jarraitzen dute autonomismoaren, federalismoaren eta independentismoaren artean.

Gernikako Estatutuak gehiengoaren babes esplizitua berreskuratzen jarraitzen du.

Independentzia nahiak gutxiengoak dira oraindik.

EZ-ABERTZALEEK NAGUSITASUNARI EUSTEN DIOTE EUSKAL GIZARTEAN, ZATIKETA KRONIKO BATEN ERDIAN

Abertzaleen (% 45) eta ez-abertzaleen (% 50) arteko zatiketa kroniko batean, bi taldeen arteko diferentziak mantendu dira azken sei hilekoan. Hautesleriaren arabera, ez-abertzaleak Elkarrekin Podemosen boto emaileen % 72ko gutxienekoaren eta popularren eta Ciudadanosen % 100eko gehienekoaren artean kokatzen dira, tartean egonda abstentzionisten % 64 eta PSE-EEren % 91. Aitzitik, sentimendu abertzalea PNVren % 74ko gutxienekoaren eta EHBren % 83ko gehienekoaren artean dabil (ikus 11. grafikoa).

EUSKAL ETA ESPAINIAR IDENTITATEEN ARTEKO BATERAGARRITASUNA NAGUSI DA ORAINDIK, EUSKALDUNTASUNA ARGI NABARMENDUZ

Seihilekoan egonkortasun handia erakutsita, gehiengoak, ia bost euskaldunetatik hiruk (% 58), euskal eta espainiar identitateen arteko bateragarritasunari eusten diote. Horren barruan, euskaldun-espainiar orekatua da nagusi (% 31), eta horri dagoeneko ezaguna den euskalduntasun sentimendua gehitzen zaio (% 24), zeina, edonola ere, espainolismoaren (% 3) oso gaintik dagoen. Bestalde, muturreko espainolismoa soilik % 5era iristen da, eta, bien bitartean, euskaldunen heren batek baino apur bat gehiagok (% 37) soilik euskaldun identitatea dutela adierazi dute, sei hilekoan +5 puntuko aurrerapena izan ondoren (ikus 12. grafikoa).

Euskaldun eta espainiar sentitzen direnen identitateen bateragarritasunari dagokionez, EHBren boto emaileen % 12ren eta Ciudadanosen boto emaileen % 100ren artean dago (tartean dira PNVren, PPre, eta abstentzionisten % 63, Elkarrekin Podemosen % 69 eta PSE-EEren % 74); nolahi ere, euskalduntasuna argi nabarmentzen da abertzaleen eta Elkarrekin Podemosen artean, eta orekatuagoa da, berriz, autonomisten artean. Soilik euskaldun sentitzen direnen eskusotasuna EHBren hauteslerian (% 78) biltzen da, eta esanguratsua da PNVren boto emaileen artean (% 36), haien arteko zatiketa handiagoa den arren. Bestalde, espainiar sentimendua sozialisten, Ciudadanosen eta, batez ere, popularren artean nabarmentzen da.

EUSKAL GIZARTEAK ZATITURIK JARRAITZEN DU AUTONOMISMOAREN, FEDERALISMOAREN ETA INDEPENDENTISMOAREN ARTEAN

Estatuko lurraldea antolatzeko formari dagokionez, urte arteko egonkortasun handiko testuinguru batean, euskal herritarrek zatiturik daude oraindik autonomismoaren,

federalismoaren eta independentismoaren artean. Euskal herritar gehienak oraingo formula autonomikoaren (% 33) eta balizko federalismo baten artean (% 34) kokatzen dira. Gaur egungo eredu autonomikoa aukera nagusia da oraindik Ciudadanosen (% 90), popularraren (% 62) eta sozialisten (% 51) hauteslerietan; maila apalagoan ageri da abstentzionisten (% 40) eta PNVren (% 38) artean, eta nabarmentzekoa da Elkarrekin Podemosen (% 24) boto emaileen artean eta, oro har, ez-abertzaleen artean (% 47). Arabarrek aukera hori lehenesten dute (% 38). Autogobernua formula federal batez garatzeko aukera nagusi da, bestalde, Elkarrekin Podemosen (% 54) eta PNVren (% 42) boto emaileen artean; dena den, babes nabarmena dauka sozialisten (% 30) eta abstentzionisten (% 31) artean. Aukera hori antzera babesten dute abertzaleek eta ez-abertzaleek (heren bat inguru). Bizkaitarrek aukera hori lehenesten dute (% 38). Nolanahi ere, bi formula integrazionista horiek gehiengo argia osatzen dute oraindik (% 67), hiru euskaldunetatik bi horren alde baitaude (ikus 13. grafikoa).

Formula deszentralizatzaile eta integrazionista horien aurrean, autodeterminazio edo konfederazio formulen independentismoa euskaldunen laurdenek inguru (% 28) babesten dute berriro, Gipuzkoan (% 36) batez ere. Aukera hori EHBren (% 78) boto emaileek babesten dute gehien, eta, oro har, abertzaleek ere babesten dute (% 45), gutxiengoa bada ere PNVren (% 18) eta Elkarrekin Podemosen (% 18) boto emaileen artean. Beste muturrean, euskaldunen % 3 zentralismoaren aldekoak dira, arbuizate edo lekukotasun adierazpen gisa, eta horren barruan, batez ere, boto emaile popularraren, sozialisten eta Ciudadanosen gutxiengo bat biltzen da.


GERNIKAKO ESTATUTUAK EUSKAL HERRITAR GEHIENGOEN BABES ESPLIZITUA BERRESKURATZEN JARRAITZEN DU

Gernikako Estatutuaren onarpena berretsi zuen erreferenduma egin zenetik 37 urte igaro direnean gaur erreferendum hori berriro egingo balitz, baiezko botoa (% 48) berriro gerturatuko litzateke 1979an erroldaren gehiengoak (% 53) emandako baiezko botoari, urte artekoan +18 puntu berreskuratu ondoren. Aldeko iritzia hori ia berdina mantentzen da abertzaleen (% 47) eta ez-abertzaleen artean (% 49). Aldiz, orain dela 30 urteko ezezko botoa (% 3) gainditu egingo litzateke (% 16 eta -4 puntuko urte arteko atzerapena) garai hartan izandako abstentzioaren kargura (1979an abstentzioa % 41 izan zen). Zatiketa hautesleria guztien ezaugarria da, baina baiezkoa nagusi da denetan, EHBn izan ezik, zeinak, zatituago ageri bada ere, gero eta gutxiago egiten baitu ezezkoaren alde (% 42) (ikus 14. grafikoa).


INDEPENDENTZIA NAHIAK GUTXIENGOAK DIRA ORAINDIK EUSKAL GIZARTEAN

Euskal autogobernuaren formula politikoa zein den alde batera utzita, euskal herritarren herenek gutxi gorabehera (% 30) independentzia nahi dutela adierazten dute, urte arteko egonkortasun handiarekin. Hori adierazi dute EHBren boto emaile gehienek (% 84) eta abertzale gehienek (% 52), oro har, eta, maila apalagoan, PNVren boto emaileek (% 22). Horien aurrean, euskal gizartearen gehiengoak (% 60) adierazi du independentzia nahia txikia duela (% 22) edo ez duela independentziarik nahi (% 38); iritzi hori ematen da, batez ere, ez-abertzaleen artean (% 78) eta alderdi autonomisten boto emaileen artean (hamarretik bederatzik baino gehiagok); halere, multzo horren barruan daude ere PNVren (% 69) eta Elkarrekin Podemosen (% 68) boto emaile gehienak eta abstentzionista (% 67) gehienak --- ikus 15. grafikoa ---.


11. Grafikoa: EUSKALDUNEN SENTIMENDU ABERTZALEA




12. Grafikoa: EUSKALDUNEN IDENTITATE NAZIONAL SUBJEKTIBOA



13. Grafikoa: ESTATU EREDUARI BURUZKO ALTERNATIBAK




14. Grafikoa: AUTONOMIA ESTATUTUARI EMANDAKO BOTOAREN BILAKAERA 1979 ETA 2017* ARTEAN



* Bilakaera sektorialak oraingo boladari egiteko erreferentzia aurrekoarekin alderatuta (2016ko Urria)

15. Grafikoa: EUSKALDUNEN INDEPENDENTZIA NAHIAK





V. Atala

ETAren aurkako gehiengoaren erabateko gaitzespena errekor historikoaren inguruan dago, abertzaleen barruko eraldaketa gertatzen ari den honetan.

Euskal gizarteak bere jarrera gogortu du terrorismoko delituak dituzten presoak barkatzeari eta gizarteratzeari dagokienez.

Euskal gizarteak adostasun garrantzitsua dago terrorismoaren amaierari heltzeko moduari buruz: irmotasunaren eta adiskidetzarako eskuzabaltasunaren artean.

EUSKAL GIZARTEAREN GEHIENGOAK ETAREN AURKA ERAKUTSITAKO ERABATEKO GAITZESPENA ERREKOR HISTORIKOAN DAGO, ABERTZALEEN BARRUKO ERALDAKETA GERTATZEN ARI DEN HONETAN

Euskal gizartearen gehiengoak ETaren aurka erakutsitako gaitzespena (% 58) errekor historikoaren inguruan dago, seihilekoan -5 puntu atzeratu den arren, armak entregatu ondoren. Jarrera hori nagusi da probintzia guztietan (Gipuzkoako % 56ren eta Arabako % 65en artean), abertzaleen artean (% 44) eta, batez ere, ez-abertzaleen artean (% 71); jarrera nagusia da, halaber, hautesleria ia guztietan, Elkarrekin Podemosen % 60ko gutxienezetik PPren % 95eko gehienekora, salbuespen bakarria EHB izanik (ikus 16. grafikoa).

Nolabait babesten dutenen iritziak, dela ETaren indarkeria lehen justifikatuta zegoela eta orain ez uste dutenenak (% 7) dela helburuak bai baina indarkeria metodoak partekatzen ez dituztenenak (% 10), egonkortu dira ere. Iritzi hori nabarmena da abertzale sentitzen direnen artean (% 25) eta haien hauteslerien artean (PNVren % 13ko gutxienezetik EHBren % 38ko gehienekora, tartean Elkarrekin Podemosen % 18a egonda).

Halere, estatistikoki garrantzi gutxiago izan arren, deigarria da ia erabat desagertu dela erabateko babes esplizitua eta osoa (% 1), baita EHBren boto emaileen artean ere (% 6), eta 5 puntura murriztu dela haren akatsak onartuta ETaren justifikazio kritikoa egiten dutenen multzoa, soilik EHBren boto emaileen % 20k mantentzen baitute. Gaur egun, ematen du EHBn biltzen den Ezker Abertzalearen gehiengoak kokatzen dela helburuak partekatzen baina indarkeria metodoak gaitzesten dituztenen (% 28) edo kritikoki babesten dutenen (% 20) artean, eta horiei batu behar zaie, berriro ere, erabateko gaitzespena adierazi dutenak (% 20), zeinak, gainerakoan, aldeari eusten baitote erabateko babesaren adierazten dutenekiko, hautesleria horrek azken urteotan izandako pixkanakako moderazioaren ondoren eta azken hauteskunde autonomikoetan boto emaileen bosten bat galdu osteko barne oreka berrezarri ondoren. Horrek guztiak argi berresten ditu indarkeria behin betiko utzi aurreko urteetan ETak eta Ezker Abertzaleak izandako babesaren galera eta horren arrazoiak, bai eta 2011n hasitako ziklo berrian babes hori berreskuratu izana edo orain dela gutxiko galera.

EUSKAL GIZARTEAK BERE JARRERA GOGORTU DU, TERRORISMOKO DELITUAK DITUZTEN PRESOK BARKATZEARI ETA GIZARTERATZEARI DAGOKIENEZ

Azken seihilekoetan joera nabarmen aldatuta eta presoen gaiarekin nolabaiteko nekea adierazita, euskal gizartearen gutxituz doan (-15 puntu azken urtean) gutxiengo

bat (% 35) terrorista guztiek gizarteratze neurrien onurak jasotzearen alde dago, baldin eta damutzen badira eta armak uzteko erabakia adierazten badute. Horien aurrean, ia lautik batek (% 23) uste du neurri horiek soilik aplikatu dakizkiekeela hilketari deliturik ez dituztenei; bestalde, hirutatik bat (% 33 eta azken urtean + 14 puntu aurreratuta) ez dago barkatzeko prest, eta uste du batzuek nahiz besteek zigor osoak bete behar dituztela (ikus 17. grafikoa).


Baldintzarik gabe barkatzearen alde dauden abertzale gehiengoen jarrera hoztu bada ere (-22 puntu azken bederatzi hilabeteetan), ez-abertzaleak zatiturik daude gai horren inguruan, baina orain zigorrak osorik betetzearen aldeko jarrera nagusitzen da (% 44). Soilik EHBren boto emaileak (% 60) daude argi eta garbi baldintzarik gabeko barkamenaren alde, eta, neurri askoz ere apalagoan eta zatiketa handiko testuinguruan, horren alde daude ere PNVren (% 30) eta Elkarrekin Podemosen (% 48) boto emaileak. PPren eta PSE-EEren hautesleriaren gehiengoa zigorrak osorik betetzearen alde dago (% 58), C'sen hautesleria bezala (% 70).

EUSKAL GIZARTEAN ADOSTASUN GARRANTZITSUA DAGO TERRORISMOAREN AMAIERARI HELTZeko MODUARI BURUZ: IRMOTASUNAREN ETA ADISKIDETZERAKO ESKUZABALTASUNAREN ARTEAN


Gure herritarrei berriro planteatu diegu batzuek nahiz besteek Euskal Herrian indarkeriaren zikloa ixteko planteatzen dituzten mezu nagusi eta eskakizun politikoekin ados dauden ala ez adierazteko, eta askotan adostasun garrantzitsua lortu da. Hala, eta adostasun handienetik txikienerako hurrenkeran, hamarretik bederatzik (% 87, % 5en aurrean, eta azken lau urteetan +7 puntuko igoera izanda) “bi bandoen biktimekin justizia egin behar dela” adierazi dute; tartean daude bai abertzaleak (% 95) bai ez-abertzaleak (% 81) eta hautesleria guztiak (PPren boto emaileen % 65etik EHBren boto emaileen % 97ra). Gainera, ia proportzio berean (% 85 eta % 6) uste dute “ez dela bakarrik kontuan hartu behar ETAK egindako indarkeria”; honen erradiografia politikoa aurrekoaren oso antzekoa izanik. Orain dela lau urte bezala eta antzeko adostasuna lortuta (% 76 eta % 12), “Euskal Herrian indarkeriaren zikloa ongi amaitzeko ez dira behar ez garaileak ez garaituak”; iritzi hori gehiago agertzen da abertzaleen artean (% 85) ez-abertzaleen artean baino (% 68). Alabaina, era berean, ia gehiengo berak (% 73 eta 13) zera eskatzen du “ETAK epaitu gabe dauden 300 atentatu baino gehiagoren egiletza argitu behar du”; azken lau urteetan +12 puntuko igoera izan du, eta gehiago igo da ez-abertzaleen artean (% 85) abertzaleen artean baino (% 62); halaber, “ETAK eta haren aktibistek beren indarkeria historiaren akatsa onartu eta iraganaz damutu behar dute” iritzia % 69k babesten dute % 15en aurrean (horretan zatituta ageri da EHBren hautesleria, % 33

alde dago eta % 47 aurka). Gainera, "ETAri baldintzarik gabe desegiteko eskatu behar zaio, inolako pausoa eman baino lehen" adierazpenean, % 65 alde dago eta % 23 kontra (EHBren hautesleriaren % 66 ez dago ados). Eta amaitzeko, gehiengoaren akordioan (% 53 eta % 23) adostasuna hausten da "ETAk Euskadiren garapen ekonomikoa baldintzatu du" baieztapenaren aurrean, EHB gehiengotik bereizten da aurkako iritzia edukita (% 51), eta abertzaleak zatituta ageri dira, gehiengo argirik gabe. Era berean, adostasuna hausten da berriro "ETA Euskadin bizi izan dugun indarkeriaren arduradun nagusia izan da" baieztapena babesten (% 49) eta ezeztatzen (% 32) dutenen artean; batez ere, aurka dauden abertzaleen (% 46) eta alde dauden ez-abertzaleen artean (% 62). Zatiketa, ordea, are handiagoa da, orain dela lau urte bezala, baieztapen honen aurrean "biktimen elkarteen eskakizunak eragozpen bat izan daitezke behin betiko bakea lortzeko"; horren aldekoak % 46 dira eta aurkakoak, berriz, % 33, eta, batez ere, abertzaleak daude alde (% 54) eta ez-abertzaleak kontra (% 43) --- Ikus 18. grafikoa ---.


16. Grafikoa: EUSKALDUNEN JARRERA ETAREKIKO



17. Grafikoa: TERRORISMOKO DELITUAK DITUZTEN GIZARTERATZEARI BURUZKO IRITZIA



18. Grafikoa: TERRORISMOAREN AMAIERAKO ZENBAIT JARRERAREKIKO ADOSTASUNA/DESADOSTASUNA



A series of horizontal dashed lines for writing, consisting of 20 lines spaced evenly down the page.